


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hitzak azalean igurtziz



Amaia Alvarez Uribe



Mr. Señora

OIER GUILLAN

Txalaparta, 2016

Oier Guillanek azken lanean, *Mr. Señora eta beste ileorde batzuk* izenburupean zazpi antzezlan aurkituko ditugu. *Ileorde* hitzarekin Eugène Ionescoren *La cantante calva* lanari egindako erreferentziarekin absurdorako joera datorkigu burura. Joera honen bitartez kritika soziala eta jendarte egiturak agerian ipini eta deseraikitze aukera baliatu du egileak. Eta horrekin batera poesiarako sartu-irtenak ere, hitzekin jolasteko eta ni-a biluzteko aprobetxatuko baitu.

Bidelagun ugari izan ditu Guillanek antzezanok erreizitateko: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Joseba Roldan, Urtzi Urkizu, Iñigo Ortega eta Miren Alcalá. Normaltasuna eta arau sozialak auzitan jartzeko galderak eta gogoetak egiten ditu lan hauetan kontraesanak azaleratuz, egileak ohi dituen kontzeptu eta irudi batzuk errepikatuz: mina depilatu edo elkartasun erradikala.

Mr. Señoran desarmairugabetzea aldarrikatzen du. Norberaren eta Besteen begiradaz ari da, eragiten duten minez eta gorputzak askatzeko aukeraz. “Denok gara arma-ru batetik ateratzeko gai. Zein da zurea?”, galdetzen dio irakurle edo ikus-entzuleari. *Hautudeterminazioan* euskaldunak bere burua, bere hankartea, bere mingaina, bere azala egunero hautu-determinatzen duela dio. *Ate etzanan* elkarbizitza eta gatazkez ari da. Anariren kantu bateko letra erabiltzen du abiapuntu gisa eta harremanei begira jartzen da ohe eta mahai artean.

Maite zaitut oraindik lanean maitasunaren “alde iluna”-ri begiratzen dio. Bestearen askatasuna norberarenarekin nola moldatu daitekeen planteatzen da. Maite zaituztenek

eragindako minaz mintzo da. Eta minean sakontzen du *Minari buruzko solasaldiak*-en. Min motak eta minen iraupenaz, ahanzturaz, bestetasunaz dihardu.

Bi ahots lanean *Tintinen* Dupond eta Dupont ekarri dizkigu akordura. Ispilura begiratzuz, norberarenak bestearen bidez ulertu nahian dabilta. Egiaz eta gezurraz hitz egingo dute, munduko gerrez. “Emakumeek pairatzen dutena da munduko gerrarik zaharrena, aitortu gabeko gerra, biktima gehien eragin duen gerra”, ondorioztatuz.

2010ean Artezblairekin argitaratutako *Arra*. *Arraroa* da bilduma honetako azken antzezlan. “Zerk edo zerk definitu badu orain arte gizona izatea zer den, hori beldurra izan da”, irakurri ahal diogu orriotan. Familia du hizpide, gune eta bazterrak. Itsusien aldeko aldarria egiten du Virginie Despentesek *King Kong Théorien* egin bezala. Ainara Gurrutxagak hitzaurrean dioen moduan, azaleko izotz geruza desagerrarazteko ukendu gomendagarria. ■

Oier Guillan idazle eta teatrogile erreteriarra (eskuinekoa); ‘Mr. Señora’ lanaren antzezpenean.

